

oroimenean
barrena

VIKTOR E. FRANKL

Gizakia zentzu bila



Gizakia zentzu bila

Oroimenean barrena, 10

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaureritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko urrian

Jatorrizko izenburuak:

Ein psychologe erlebt das Konzentrationslager

Man's search for Meaning

Azaleko irudia eta diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Viktor E. Frankl-en oinordekoak

© Itzulpenarena:

Lontxo Oihartzabal

Miren Arratibel

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-212-4

L. G.: SS-989/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

VIKTOR E. FRANKL
Gizakia zentzu bila

Hitzaurrea
Ma Ángeles Noblejas de la Flor

erein

AURKIBIDEA

Hitzaurrea: M^a Ángeles Noblejas de la Flor. 9

GIZAKIA ZENTZU BILA

LEHEN ATALA

KONTZENTRAZIO-ZELAIA BIZI DU

PSIKOLOGO BATEK 23

119.104 zenbakia zeraman kidearen informea:

Saiakera psikologiko bat 30

Lehen aldia

Kontzentrazio-zelairako sarrera unea. . . 35

Bigarren aldia

Kontzentrazio-zelaiako bizimodua 53

Hirugarren aldia

Kontzentrazio-zelaitik askatuak

izan ondoren 148

BIGARREN ATALA

LOGOTERAPIAKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK. . 157

Ohar bibliografikoa. 209

HITZAURREA

Irakurleak esku artean duen liburu hau ate bat da, pertsona orok bere existentziaren egoera konkretu bakoi-tzean bizi-zentzua bilatzeko eta gauzatzeko duen beharri buruzko gogoeta bizi eta sakona egiteko sarbidea ematen digun ate berezi bat.

Gizakiaren indar motibatzaile horrek, “zentzu-nahi” horrek, gaitasuna ematen dio bere barne-barneko deiari—hau da, egunerokotasunean eginkizunak, proiektuak eta ametsak aurrera eramateko eta bere burua naturaren, artearen eta, batez ere, maitasunaren bizipen sakon batera zabaltzeko dei horri— behar bezala ihardesteko. Areago, bizi-zentzua bilatzera bultzatzen du gizakia, baita oinaze eta zoritxar ezinbestekoetan murgilduta dagoenean ere.

Kontzentrazio-zelaietara deportatua izan baino lehenagoko bere esperientzian, Viktor Frankl psikiatra eta neurologoak pazienteengandik eta pazienteekin ikasi zuen ezin saihestuzko sufrimendu bat pairatzeko edo muturreko egoera bat bizitzeko unean orientabide bat edo bizi-zentzu bat izateak egoera hori duintasunez eramaten laguntzen diola gizakiari, tragedia zena giza lorpen

gisa eraldatuz. Beste alde batetik, baina, “etsipenean erortzea zentzuz gabetutako sufrimendu bat bizitzea” dela ere egiaztatzen du.

Kontzentrazio-zelaietako preso gisa bere gorputz guztiz biluziaz gain –ilez ere gabetua– ezer ez duela –“ezertxo ere ez”– esperimentatzen duenean, eta bere “izate biluzia” baino ez zaiola geratzen etsitzen duenean, tinko eusten dio honako ideiarri: “bizirik irautea sufrimenduari zentzua aurkitzea da”. Hori dela eta, Nietzscheren adierazpen hau jasoko du bere obran: *Bizitzeko zergatia duenak, aurkituko du ia beti, nola bizi.*

Bere esperientzien sakontasun existentziala, hutsalakeriatik eta benetakotasun-ezetik urrun dauden eta gure bihotz-muina hunkitzen duten hitz batzuen bidez, iristen da ezinbestean guregana.

Aldi berean, egileak lehen atal autobiografikoa (*Kontzentrazio-zelaia bizi du psikologo batek izeneko*) idaztean “saiakera psikologiko” bat eskaintzea du xede. Testu horretan transmititzen digun lehen ideia da bere asmoa ez dela “gertakari eta pasarteen kontakizun bat” aurkeztea, “milioika eta milioika gizakik pairatutako esperientzia pertsonalak” azaltzea baizik. Galdera honi nahi lioke erantzun: “Nola eragiten zion presoaren psikologiari kontzentrazio-zelaiko eguneroko bizimoduak?”. Lan horretan Viktor Franklek erakusten diguna ez da hainbeste “aginteren bat zutenen mina”, baizik eta “*milaka eta milaka biktima ezezagun eta ahantzi* haien guztien sakrifizioa, pairamena eta heriotza”; mahuketan inolako bereizgarririk ez zeramaten preso arrunt haiek baitziren “mafiaburuen mesprezua jasotzen” zutenak.

Frankl saiakera honekin egiten saiatzen dena, beraz, “gizon-emakume haien bizipenen psikologia marraztea” da; kontzentrazio-zelaietan egon zirenek bizitakoa azaltzen eta ulertzen ahalegintzen da, “egungo ezagutza psikologikoaren argitan betiere”. Han barruan inoiz ez egondakoei, hango presoen bizipen lazgarriak ulertzen lagun diezaieke saiakerak, baita “denetan gaitzena dena”, hau da, handik bizirik atera zirenek bizitzaren aurrean hartu zuten jarrera berria ulertzen ere.

Hala, intentzionalitate profesional hori, beharrezko katarsi pertsonal batekin bateratzen du egileak orriotan, hilabete batzuk lehenago, *Aerztliche Seelsorge* (Psikoanalisi eta existenzialismoa) liburuaren hirugarren eta azken bertsioa idatzi aurretik, sentitzen hasia zen ezinegon emozionalaz osotara libratu nahirik. Egileak berak kontatzen digu bere oroitzapenetatik (*Nire liburuetan idatzita ez dagoena* lanean) nola “ireki ziren atea”. Hitz benetan hunkigarriak darabiltza: “Noizean behin –hor ikusten dut oraindik neure burua–, gorputza besaulkian erortzen utzi eta negarrez hasten nintzen. Hain nindukaten hunkituta neronen pentsamenduek, askotan, argitasun mingarri batez etortzen zitzaizkidan bat-batean burura. Ateak zabalik zeuden... Artean 1945. urtea zen, bederatzi egunean diktatu nuen kontzentrazio-zelaiko esperientziari buruzko liburua...”.

Gizakiak zailtasunak gainditzeko, batetik, eta bizitzari aurre egiteko beharrezkoa den ebidentzia bat –egia orientatzaile bat– pertsonalki deskubritzeko, bestetik, duen gaitasunari buruzko ikuspegi ezohiko bat eskaintzen digu lanak. Esperantza berri bat helarazten digu

norberaren existentzian, zentzu bat bilatzeko zeregin humano horretan.

Frankl ez da ibiltzen jendeak bizitako izugarrikeriak lehen planora ekartzen dituzten xehetasun horien bila (beste argitalpen batzuetan luze eta zabal azalduak jada); aitzitik, errotiko barne-askatasuna nabarmenarazten du, askatasun hori baldintza biologiko gogorrenen erdian (desnutrizio larria, akidura fisikoa, lo falta, bortxazko lanak, arreta medikoa falta duten gaixotasunak, baldintza higienikorik eza...), baldintza psikologiko latzenen erdian (tentsio emozional etengabea, suminkortasuna, apatia, oldarkortasuna, zigor arbitrarioak, umiliazioa, pertsonaren gutxiespena...), eta orobat baldintza soziologiko zailenen erdian ere (tirano berrien goranahia babesten duen egituraketa hierarkiko zurruneke antolaketa, presoaren indar produktiboaren ezin gehiagorainoko esplotazioa...) praktika daitekeelako segurtasun osoan.

Era berean, erakusten digu nola presoak, bere izatearen sakonenetik (masifikazio itogarri bati aurre eginez), *helduleku* bat bilatzen duen norbere izatearekin berriz elkartzeko, bere buruaren balioaren kontzientzia horrekin berriz batzeko, bizitzera behartzen duten ingurune deshumanizatzaile horretan balio hori inork onartuko ez dion arren. Bere *duintasun pertsonala* mantentzeko borroka horretan bere burua kokatzea da kontua, bere orainaldiari aurre egiteko indarra emango dioten *heldulekuak* deskubritzea eta bizitzan sustraituko duen zentzua bilatzea.

Sei elementu hauetan laburbil daiteke kontzentrazio-zelaietan egondako pertsona haiek beren barne-

munduaren zabaltasun sakonean barrendu ahala aurkitu zuten aberastasun itzela: maitasunaren bizipena, norberaren iraganaren zentzuaren kontzientzia, naturarekiko gozamina, artearekiko atsegin sakona, umorea eta bakardaderako espazio baten bilaketa eta aurkikuntza.

Kontzentrazio-zelaietan, barrura begirako une laburrak, batetik, eta besteei laguntzeko ekintzak, bestetik, txandakatzen ziren; gisa honetako ekintzak, adibidez: presentziako mediku-zerbitzua eskaintzea, kide gaixoei —delirioak hartuta eta hil zorian— konpainia egitea eta adore ematea...

Franklek orobat erakusten digu nola aplikatzen ziren zelaietan, ahal zen neurrian, “psikoterapiako edo psikohigieneko oinarriak, banaka zein taldeka”, batez ere suizidioak saiheste aldera, edo itxaropena handitzeko asmoz. Logoterapiaren aplikazioak (“giza existentziaren zentzuan eta zentzu hori bilatzeko gizakiak egindako ahaleginean” oinarritutako aplikazio psikoterapeutikoak, Franklek asmatua) izan dezakeen garrantzi terapeutikoaren gainean gogoeta egitera eraman gaitzake horrek, jardun profesional kliniko baten eremuaren barruan betiere.

Kontzentrazio-zelai bateko dinamikan aurkitzen diren mekanismo psikologikoak ulertzeko bere ahalegin horretan, zelaiko zaintzaileen psikologiaz ere arduratzen da egilea. Beharrezkoa iruditzen zaio galdetzea, ikuspegi psikologikotik begiratuta, nola den posible “hezur-haragizko gizon haiek, besteak bezalako gizaki haiek, presoak hain modu inhumanoan eta krudelean tratatzea”.

Sadismoak, bere zentzu kliniko hertsienean ulertuta hitza, zelaietan duen presentziaz ere hitz egiten

digu batzuetan, eta diosku “beti sadiko horiek aukerazten zituztela, gupidarik gabe jokatu zuen patruila bat behar zenean”: alegia, hautespen negatibo bat egiten zela presoen artean, mafiaburuak edo *kapoak* hautatzeko orduan.

Halaber, agerian jartzen du, zelaiko zaintzaile gehienek “sorgortuta zutela bihotza, urte luzeetan gero eta gehiagotan erabilitako metodo ankerren lekuko izanaren ondorioz”. Beren gogortze mental eta moral horretan, beste batzuek izugarrikeria horiek gauza zitzaten eragozten ez bazuten ere, “uko egiten zioten, behintzat, ekintza sadikoetan aktiboki parte hartzeari”. Orobat dio “zaintzaile batzuek” presoenganako errukia ere sentitzen zutela eta, ezkutuan, haiei laguntzeko ekintzak egiten zituztela.

Beraz, saiakeragilea gizakiaren aukeren ezagutza sakon bat izatera nola iristen den ikusten dugu, onerako zein txarrerako: izan ere, kontzentrazio-zelaietan nabarmendu ziren barne-infernuetan, agerian geratzen da “giza nolakotasunek, beren izatasunik barnekoenean, ona eta gaitza dutela osagai”.

Franklek ondo ezagutzen du *zer den gizakia*: “Auschwitzeko gas-gelak asmatu dituen izaki hori da; baina baita gela horietan burua tente eta Aita Gurea edo *Shema Yisrael* delakoa ezpainetan sartu den beste hori ere”. Gizakiak bere burua determinatzen du, bere ahalmenen eta ingurunearen mугen barruan betiere; bizitzak egoera bakoitzean planteatzen dituen galderai ematen dien erantzunetako bakoitzarekin eraikitzen du, egunero-egunero, bere izankizuna. Gizakia ez da

hainbeste galderak egiten dituen izaki bat, unean uneko egoerari erantzuteko ahalmena duen bat baizik. Erantzun horiekiko erantzukizunak haren existentziaren funtsa osatzen du: izanez izatea munduan, besteekin batera, izatera iristeko.

Viktor Franklek, behin askatua izan ondoren, hurbi-lekoak galdua, konfinamendu aurreko bere bizitza atzean utzita eta bere mundua eta Viena txirotu bat berreraikitzeke lan gogorrari aurre egitea erabakita, barne-aurkikuntza pertsonala munduari jakinaraztearen aldeko hautua egiten du, bizi-zentzua bilatzeko bere borroka partikular hori abiapuntu hartuta bere bizitza-ikaskuntzan: “Bai bizitzari, haren alderdi tragiko guztia gorabehera”. Horra Viktor Franklek zelaietako zentzugabeke-riaren erdian luze eztabaidatutako gaiaren aurrean aurkitu zuen erantzuna: esperantza edo desesperantza. Bila ari zen erantzuna aurkitu izanaz konturatu zen unearen berri ematen digu halako batean: “Une hartan bertan, argi bat piztu zen urrutiko etxalderen batean, Bavariako egunsenti gris eta hits hartako ostertzean kolore biziko pintzelkada baten moduan nabarmendu zena. *Et lux in tenebris lucet*. Eta argiak ilunpetan egiten du argi”.

Kontzentrazio-zelaietan bizitako esperientzia guztian zehar, askatasunak eta erantzukizunak (txanpon beraren bi alde balira bezala) elkarrekin duten erlazio estuaren ideia aztertzen da, egoera bakoitzaren barruan kontzientzia pertsonalak zentzu bat aurkitzen duela nabarmenduz. Hala, adibidez, askapenaren ondoren bera lekuko izan zen gertaera batzuek honakoa esatera eramán

zutela irakur dezakegu aurrerago: “Denbora eta pazientzia behar zen gizon horiek egia argi eta garbia den hau onar zezaten: inork ez du —ezta bidegabekeriarik ankerrena pairatutakoak ere— beste inori gaitz edo kalte egiteko eskubiderik”.

Hau da: Viktor Franklek, berak bizitakoaren ikuspegi psikologiko-psikiatrikoaren bidez, agerian jartzen digun antropologia-moldeak indartu eta sendotu egiten du terapia, baita eraginkorragoa egiten ere, erantzukizun pertsonal baten eta erantzukizuna lantzeko auto-hezkuntza baten bidean aurrera eramanez.

Bestalde, liburuaren bigarren partea, *Logoterapiako oinarritzko kontzeptuak* izenekoa, “logoteoria” edo logoterapiaren gorputz teorikoaren aurkezpen bat da, guztiz ezinbestekoa, beren lanbideari beren jardunaren oinarri gizabidetsuago bat gehitu nahi dioten diziplina desberdineko profesionalen interesari erantzuten diona. Egileak berak atal honen hasieran dioskunez, irakurleek bere “dotrina terapeutikoaren” azalpen zuzenago eta osoago bat egiteko eskatu ziotelako gehitu zion atal hori jatorrizko edizioari, kontakizun autobiografiko soilari.

Viktor Franklek *logoterapia* terminoa sortu zuenetik, bere *ikusmolde metakliniko eta aplikazio psikoterapeutikoari* erreferentzia egiteko modu bat bezala sortu ere, oso jarrera irekia erakutsi zuen bai beste pentsamendu eta jakintzekin elkarlanean aritzeko eta harremanak sortzeko (logoterapia beste hurbilketa modu batzuen tratamenduen osagarritzat hartuz, adibidez), bai bere bilakaerari berari zabalik egongo zen logoterapia bat planteatzeko, profesional bakoitzak eta profesional-taldeek zein bere

testuinguru sozialean eta kulturalean aurrera eramandako bidean.

Jarrera interaktibo-integratzaile horrek indarrean segitzen du egun nazio eta nazioarteko mailako erakunde eta profesionalak logoterapiaren esparruan aurrera eramaten ari diren praxisean, azterketan, gogoetan eta ikerketan.

Elementu biologiko, psikologiko, sozial eta espiritualak (hots, bio-psiko-sozial-espiritualak) unitate dinamiko baten barruan kontsideratzen dituen gizaki bati erreparatzeak ematen digun eta gure egilearen lanetik hartua dugun begirada-zabaltasun hori (non espiritualtasuna giza dimentsiotzat hartua baita, ez nahitaez erlijiotasunarekin lotua –hori ere erabat baztertu ez arren–, eta non zehazki zehazten baitira zein diren gizakiaren berariazko ezaugarriak: hots, askatasuna, erantzukizuna, kontzientzia, zentzu-nahia, bizi-zentzua...) zientzia eta teknika berriro gizatasunez janzteko baliagarri den paradigma berri bat bezala agertzen zaigu. Paradigma berri honek ekarpena egiten du, bai zientziak bai teknikak, egun jakintza ezin gehiagoraino partzializatzean, gizakiaren irudia ahultzen duten eta, ondorioz, ekintza oro har gogor eta bihozgabeak dakartzaten testuinguru batean.

Baina *Gizakia zentzu bila* liburuaren garrantzia –beheratzi milioi aletik gora argitaratuak 50 bat hizkuntza baino gehiagotan– gizatasuna eta itxaropena transmititu izanean datza gehienbat, pertsonari bere duintasunean bere burua ezagutzeko eta aitortua izateko gozamena itzuli izanean. Hortik bere hitzen izaera ia-ia betierekoa.

Gure gizarteetan, gure bizitzetan, lan egiteaz eta maitatzeaz gainera, edo adiskidetasunarekin eta artearekin gozatzeaz eta elkartasuna bizitzeaz gainera, desengainu sakonak eta injustizia sozialak ere sufritzen ditugu, bazterkeria jasaten dugu maila batean, edo muturreko egoera batek kolpatuak gara inoiz (maite dugun norbaiten heriotza, langabezia, eritasun larriak, elbarritasuna, abandonua...); saihestu ezin dugun edozein egoera mingarrik geure eskema eta segurtasunetik ateratzen gaitu... Gertaera horiek gure izate sakonenean interpelatzen gaituzte, eta elkar berrelikatzen diren erreakzioak eragiten dituzte gure organismoaren hainbat mailatan (alderdi fisiologikoan zein psikologiko-emozionaletan). Gure askatasun-posibilitatea ezagutu beharra dugu, beraz: gu ez gara gertatzen zaigun hori; badugu gertatzen ari zaigun zerbait, eta, hain zuzen ere, gertatzen ari zaigun horretatik haratago joateko gure gaitasunean datza gure existentzia. Geure burua onbideratzeko gaitasuna aurkitu beharra daukagu berriro, egoerari, garen eta izatera deituak garen gizaki horren benetakotasunez eta duintasunez aurre egin ahal izateko. Hortik abiatuta bakarrik eman dezakegu guk gure erantzun posiblea, errealista eta gure hazkunde eta heldutasun pertsonal zein komunitarioarekin konprometituta.

Zuk, gure irakurle horrek, orain eskuetan duzun liburu honen irakurketa bizipen itxaropentsu horien sus-tagarri gertatu da gizon eta emakume askoren kasuan.

Gutziz pozgarri zaigu, beraz, argitalpen honen euskarazko itzulpena, gure garaiko gizon eta emakumeen eta obra honen –pentsalari askoren ustez gizateriaren

historiako liburu nagusietako bat dugun *Gizakia zentzu bila* honen— arteko hurbilketa ezinbestekoaren korrontera, gehitu izana.

Gure zorionik beroenak, beraz, Euskadiko logoterapia taldeari, Erein argitaletxearekin batera ekimen hau aurrera eramanez gizakiari bere burua aurkitzen eta psikologiari, medikuntzari, hezkuntzari eta gizarte lanari... eta are gizarte osoari ere berriro gizatasun handiagoz jokatzen lagunduko dien errealitate kultural hau gauzatzea posible egiteagatik.

M^a ÁNGELES NOBLEJAS DE LA FLOR
Espainiako Logoterapia Elkartearen
kide sortzailea eta presidentea

Itzulpena: Miren Arratibel

GIZAKIA ZENTZU BILA

LEHEN ATALA

KONTZENTRAZIO-ZELAIA BIZI DU
PSIKOLOGO BATEK

Ein Psychologe erlebt das Konzentrationslager

Itzulpena:

LONTXO OIHARTZABAL

“Kontzentrazio-zelaia bizi du psikologo batek”. Bizipenen adierazpen bat izan nahi du hemen azalduko denak; ez da, beraz, gertakarien kontakizun hutsa; milaka giza-kik bizi izan zutena da hemen argira ekarriko dena: kontzentrazio-zelaia barnealdetik begiratua, bizi izan zuenak zuzen-zuzenean emana. Ez dira, halere, izugarrikeria haiek agerraraziko berriro hemen, jada beste leku askotan deskribatuak izan direnez gero (beti eta edonon sinetsiak izan ez badira ere); sufrimendu txiki asko izango dira hemen aipatuko ditugunak, hau da, honako galdera honi erantzuten ahaleginduko gara: nolako aztarnak utzi ditu zigortutakoaren batezbestekoaren ariman kontzentrazio-zelaiko egunerokotasunak?

Esana gera bedi, bide batez, ondorengo orrialdeetan adieraziko diren bizipenek ez dutela hainbesteko zeri-kusirik izango zelai handi ospetsuetan gertatutakoekin, horien menpeko ziren izen txarreko eta txikiagoetan gauzatutakoekin baizik, handien zerbitzura zeudeneta-koetan gertatutakoekin bereziki. Ezaguna da, halere, zelai txikiago horiek gertatu zirela suntsitzaileenak. Hemen ez gara jardungo, beraz, heroi eta martiri handi

eta ospetsuen oinaze eta heriotzen inguruan, gizatalde txikietako sufrimendu “deusezak” eta talde handietako heriotza “txikiak” izango baitira gure aztergai nagusi. Ez ditugu, ondorioz, aipatuko mafiaburu urtetsuek edo preso “ospetsuek” nozitu behar izan zituztela kontatzen zituzten gauzak; zelaikide ezezagunaren oinaze-bideak izango dira gure kontagai. Zelaikide xumeena, besteen-gandik bereizteko besoa oihal-zintarik ere ez zeramana, izan zen mafiaburuek gehien zanpatu zutena. Horrelakoa hiltzeko zoriraino goserik zegoenean, egoki joan ohi zitzaion mafiaburuari jate-kontuei zegokienetan: ordura arteko egunik oparoenak ere izan baitziren haien horietako askorentzat. Horrelakoen psikologiari eta izateko moduari dagokionez, SSetakotzat edo zelai-zaindarien taldekotzat hartu behar dira mafiaburu horietakoak; horrela epaitu beharreko giza izaera bereganatu baitzuten psikologikoki eta soziologikoki, haien kolaboratzaile izan ziren-eta. Zelai-zaindaria berak baino “esku gogorra-gokoak” izan ziren, gainera, oso maiz eta horrelakoek ezarri zizkioten zigor mingarrienak zelaira behartutako xumeenari eta, adibide bat jartzeko, SSetako kideek baino sarriagotan eta bortizkiago jipoitzen zituzten giza-gaixo ahulenak. Zelaira derrigortuen artean hasieratik jokabide bortitzengatik nabarmendu ohi zirenak izaten ziren mafiaburuaren zereginetarako aukeratuak, baina baita berehalakoan baztertuak ere, bortizkeriaz jokatzeko gauza ez zirela erakutsi orduko.

HAUTATZE PASIBOA ETA AKTIBOA

Okerra izaten da normalki kontzentrazio-zelai batean inoiz izan ez den kanpo-begirale batek han barruko egoeraz moldatzen duen irudia, hango bizitzeko erari sentimenduen begiez begiratu eta egoeraren garraztasuna arintzeko joera duenean bereziki, ez da-eta bertakoek bizirauteko elkarren aurka egin beharreko borrokaren gordintasunaz jabetzeko gai; kontuan izan behar da, gainera, zelai txikienetara zigortutakoen artean gertatzen dela borroka hori modurik latzenean. Eguneroko ogia eskuratzeko lehia horretan edo biziraun nahiak eragindakoan ematen da modurik latzenean borrokarik zakarra; inolako begirunerik gabe borrokatzen da han nor bere interes pertsonalen edo bere gertukoenen alde. Eman dezagun, zelaikideetako batzuk beste kontzentrazio-zelai batera eramanak izateko arrisku gorrian daudela, itxura guztien arabera; guztien buruan dabilen susmoa da, eta ez okerra, “gas-gelarako” bidea izango delako beldurra: kide gaixo edo ahulenak hautatuz osatutako talde bat izango da, lanerako gai ez direnak bilduz osatua, gas-gela eta errausketa-gelez hornitutako kontzentrazio-zelai handi eta nagusi batera eramango dituztenak guztiak. Bata bestearen aurkako lehia pizten da une horretantxe, baita talde ezberdinen artekoa ere. Nor bere burua edo gertueneko adiskideena babesten saiatuko da hortik aurrera: hautatuen zerrendan ez sartzen edo azken unean “zerrendatik ateratzen” ahaleginduko dira guztiak. Guztiek argi duten kontua da, ordea, zerrendatik kenduko duten bakoitzeko beste baten izena jarriko dutela

han une berean. Zenbaki baten kontua izango da guztia, zelaia zigortua izan den bati dagokion zenbakia, zerrenda osatzera kondentatua; zelaiko kideen zenbaki soilak baino ez dira agertzen zerrendan. Pentsa dezagun, adibidez, Auschwitzeko zelaian gertatu ohi zena: soinean daraman guztia kentzen zaio hara zigortuari sarrerako une berean, eta inolako agiririk gabe uzten dute han; norberak nahi duen izena, lanbidea eta antzekoak hartzeko aukera izaten du orduan; arrazoi ugarirengatik, sarritan baliatutako jokabidea. Argi ikusten den eta zelaiko nagusiei ardura dien gauza bakarra da zigortuek soinean (gehienetan tatuaturik) daramaten zenbakia. “Zigortu bati deitzerakoan” begiraleari ez litzaioke bururatuko bakoitzari bere izenez deitzerik, alferkeria hutsez gehienetan; zelaiko kide orok derrigorrez galtzetan, soinekoan edo berokian agerian josita eraman behar duen zenbakiari baino ez dio so egingo begiraleak eta hori bakarrik hartuko du kontuan (dituen ondorioengatik hara zigortuek izuz bizitako unea betidanik).

Itzul gaitezen berriro zelaiz aldatzeko garraio-prestaketa unera. Zigortuak ez du, une horretan, gogoeta moral abstraktuetarako inolako astirik, ezta gogorik ere. Etxean bere zain dauzkanengana bizirik itzultzea baino ez du buruan egoera horretan, eta zelaian nolabaiteko lotura berezia sortu duen lagunaren bizia babestekoa. Inolako gogoetarik egin gabe, beste bat, beste “zenbaki” huts bat utziko du garraiorako zerrendan jartzen.

Aurrez esandako guzti horretatik ondoriozta daitekenez, ikuspegi negatiboenetik egindako bereizketa baten bidez izaten ziren hautatuak mafiaburu (edo kapo)

izango zirenak: basatienak beti; salbuespenak ere izaten ziren, zorionez, baina ez ditugu kontuan izango oraingoz. SSetako arduradunek egiten zituzten hautatze aktibo horietatik at (nolabait esateko), bazen zelaikideen artean egin ohi zen beste era bateko hautaketa pasibo bat ere. Zelaian urte luzeak zigortuta eman ondoren, hamaika aldiz zelai batetik bestera aldatuz ibili eta gero, bakan batzuk baino ez zuten lortzen bizirik irautea: bizirauteko inolako eskrupulorik gabe borrokatzen zirenak, zelaikideen aurka indarkeriaz baliatzeko beldurrik gabeak, kideei lapurreta egitera ere ausartzen zirenak. Jainkoaren laguntzaz (zilegi bekigu horrela esatea) milaka aldiz zorioneko izan garen milakok dakigu eta bakanen aitortu dezakegu: *onenek ez zuten bizirik irauterik izan.*

119.104 ZENBAKIA ZERAMAN
KIDEAREN INFORMEA:
SAIAKERA PSIKOLOGIKO BAT

Hemen “119 104 zenbakia” zeraman zigortuak kontzentrazio zelaian “psikologo moduan” bizi izan zuena deskribatzeko ahaleginari ekin bazaio, hasieratik argi utzi behar da delako horrek ez zuela “psikologo moduan” lan egin han, ezta sendagile moduan ere (azken asteetan izan ezik). Garrantzi handikoa da hori beti argi edukitzea, lan honek ez baititu haren bizitzako gorabeherak jorratuko, batez besteko zigortuak zelaiko bizieran izan zituen bi- zipenak agertzea du-eta xede ahalegin honek. Eta harro- tasunez aitortzen dut hemen, beste edozein batezbeste- koen antzeko zigortu bat izan nintzela neu han, 119.104 zenbakia zeramana besterik gabe. Lur-lanetan eman nuen nik han denbora gehiena, baita trenbidea eraiki- tzerakoan trebesak jartzen ere maiz. Beste zelaikide ba- tzuk erdi berotutako anbulantzia inprobisatuetan paper- zaborrak erabiliz bendak egiten jarduteko zoria izan bazuten ere, niri, adibide bat jartze aldera, (ur-hodiak pasarazteko) errepeida lur-azpitik alde batetik bestera ze- harkatuko zuen tuneltxo bat egiteko lanetan jardutea baino ez zitzaidan egokitu. Eta izan zuen horrek niretzat

bere garrantzia: nire “ahalegina” onartuz, halako “sari-txartel” bi eskuratu zizkidaten 1944ko Gabonak baino egun batzuk lehenago. Eraikuntza-enpresak ematen zizkigun txartelak ziren, zelaiko nagusiek horrelakoen menpe jartzen baikintuzten esklabo gisara (eguneko eta zigortu bakoitzeko halako diru-kopuru bat ordaindu behar zion enpresak zelaiko administrazioari); berrogeita hamar zentimoko balioa zuen sari-txartel bakoitzak eta sei zigarroren trukean hartzen zizkiguten, handik asteetara, zelaiko arduradunek. Hamabi zigarroren balioa zuten bi txartelen jabe nintzen behingoz! Hamabi zigarro hamabi plater-zoparen ordezkari zitezkeen orduan, sarritan: bi astez bederen, gosez hiltzetik libra zintzakeen hamabi plater-zopak. Astero-astero bi sari-txartel ziurtaturik zituen mafiaburuak beste inork ezin zezakeen zigarrorik erre, baita lantegi edo biltegi batean arduradun moduan lan egin eta sari moduan zigarroak jasotzen zituen zelaikide arruntak ere. Norberaren bizia arriskuan jartzen zuten lan osagarriak eginez soilik eskuratutako sari-txartelen trukean jasotzen zituzten zigarro preziatuak zigortu arruntenek, gero janaren trukean emango zituztenak. Etorkizunik ikusten ez-eta, bizitzen jarraitzeko gogoak galdurik, geratzen zitzaizkien azken egunak “gozatzeko” erabakia hartua zutenek jarraitzen zuten zigarroak erretzen. Kide bat bere zigarro bakanak erretzen ikusi orduko, bagenekien galdua zuela jada bizitzen jarraitzeko kemena; gertatu ere, horrelaxe gertatzen zen ia beti.

Nahikoa, honenbestez, liburuaren izenburua argitzeaz eta justifikatzeaz. Galde dezagun orain era honetako liburu bat idazteko eginkizuna hartzeak izan dezakeen

zentzuaz. Kontzentrazio-zelaietan gertatutakoaz nahikoa liburu argitaratu da dagoeneko. Gertakariak aipatuko badira hemen, pertsona batek bizi izandakoa agertzen duelako izango da, gertakari batek eragindako benetako bizipena adierazten duelako; bizipenak izango dira, beraz, hemengo ahalegin psikologiko guztien gaia. Zentzu bikoitza izango dute ahalegin horiek, irakurleak kontzentrazio-zelaia eta hango bizimodua zuzenean bizi izan duen ala ez kontuan hartuz gero. Hura zuzenean bizi izan zuen irakurlearentzat, han benetan bizi izandakoa egun eskura ditugun baliabide zientifikoak erabiliz argitzea izango da ahalegin honen xedea; beste irakurleentzat, berriz, hura bizi izan zutenentzat argi dagoena horiei ulergarri egitea. Hona, beraz, eginkizuna: zuzenean nozitutako bizipenak besteentzat ere modu ulergarrian jartzea, hara zigortuak izan zirenek jasandakoak besteentzat ulertzeko moduan adierazita uztea, eta, bide batez, zelai haie-tatik bizirik irten ziren talde mugatu haie-tako kideek gero bizitzan hartu zuten jarrera, psikologikoki begiratura nahikoa berri eta berezia, ulertzen saiatu daitezela eskatzea. Ez baita, berez, erraz uler daitekeen kontu bat; maiz entzuten zaie oraindik ere handik bizirik irteteko zoria izan zutenei honako hau esaten: “Ez gara atseginez mintzatzen han bizi izandakoaz; ez zaio ezer argitu behar kontzentrazio-zelai batera zigortua izan zenari; eta han egon ez zenari ezin jarriko diogu ulertzeko moduan orduan bizi izan genuena, ezta han bizitakoak gaur egun guregan dituen ondorioak ere”.

Metodologikoki begiratura, baditu era honetako ahalegin batek hainbat eta hainbat zailtasun. Distantzia

psikologikoa eskatzen du era honetako ahalegin psikologikoak. Gorde ote zezakeen, ordea, distantzia hori konzentrazio-zelaiko egoera zuzenean nozitzen ari zenak bere behaketak eta gogoetak egiten ari zen bitartean? Kanpotik begiratzen zuenak gorde zezakeen, nola ez, distantzia hori, baina distantzia handiegia hartzeko arriskuan ere egon zitekeen aldi berean, bizipenen zurrunbiloen eraginetatik urrutiegi egonda, lan nekeza baita deskribapen eta proposamen baliagarriak egitea. “Zurrunbiloaren erdian” dagoenak duen distantzia, aldiz, eskasegia izan daiteke iritzi objektibo bat moldatzeko orduan; bera da, halere, eta bera bakarrik, aztertu beharreko bizipena zuzenean ezagutzen duena. Posible izateaz gain gertatu ere, gerta daiteke, gainera, nozitu zituenak neurtzeko erabiltzen duen neurria okerra eta desegokia izatea. Inolaz ere saihestu ezin den arriskua da hori. Hona, horrelako egoeretan, egin beharreko ahalegina: norberaren bizipenak egingo diren aurkezpenetatik kanpo uztea, baina, eta beharrezko gerta dadin neurrian, bizipen subjektiboak ere aurkezteko ausardia izatea. Era honetako azterketa psikologiko batek duen arriskua ez dago gaia tonu pertsonal batez kutsatzean, landu nahi den arazoa alderdi jakin bakar batetik aurkezteko joeran baizik. Ondorioz, beste batzuei utziko diet lasaitasun osoz, hemen aurkeztutakoa berriro eta erabat garbitu arte destilatzeko eginkizuna, eta hemen eskainitako bizipen subjektiboetatik teoria objektiboak moldatzeko betebeharra.

Hemen aipatuko ditugun teoria psikologikoek espezteratuaren bizipenei dagozkien psikologia eta psikopatologiaren eremuetara egindako ekarpen bat izan nahi

dute, horiek azken hamarkadetan ulertu izan diren moduetara behinik behin. Lehen Mundu Gerraren garaietan egin zitzaion lehen ekarpen ezagunena. “Alanbre-sareen gaixotasun” moduan egin zitzaigun ezagun orduan (*barbed wiredisease*, ingelesez): lehen aldiz gerrako gati-buen kontzentrazio-zelaietan behatu ahal izan ziren erre-akzio psikologiko arazotsuak. Bigarren Mundu Gerrate-ari egokitu zitzaion gaia “Masen Psikopatologiaz” gehiago aberastea, Le Bon sendagilearen liburuaren izen-buru eta esamolde ezaguna eraldatuz nolabait adieraz-teko. Bigarren gerrate hori izan zen, izan ere, gerora “ner-bio-gerra” bezala ezagutzen duguna lehen aldiz begien aurrean jarri ziguna eta horri esker eskuratu ahal izan ge-nituen kontzentrazio-zelaietako bizipen-materialak.

Aitortu behar dut, behin puntu honetara iritsi gare-nez, hasiera hartan liburu hau ez nuela nire izenarekin argitaratzeko asmorik, zelaian ezarri zidaten zenbaki hu-tsez baizik. Ez zitzaidan batere atsegina gertatzen han bizi izandakoa nire izena publikoaren aurrean nabar-mentzeko erabili beharra. Lanaren lehen-bertsioa idatziz jartzea amaitu nuenean konbentzitu ninduten izenik ga-beko argitalpen batek indarra eta balioa galduko luke-ela, eta nozitutakoak neuk jasan behar izan nituela onar-tzeko kemenak, berriz, balioa gehituko liokeela. Horren ondorioz, bigarren idazketa batean nirez kendu izango nituzkeen puntu batzuk bere horretan uztea erabaki nuen, gertatutakoa publikoan nire izenez agertzeari nion lotsa bide horretatik gaindituz eta nire buruari saritxo bat eskainiz, bide batez.